BAGILLA-JUNIO
6
Egubaztena - Miercoles

Bilbao, 1934

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA

...ao'kua... ...	6,00	irko.	iru ilez
Bilbao'atazkua	7,50	"	"
Idazki-Itunmena	62,00	"	urtez
Atzarrijetakuak	100,00	"	"

Beldayen itunduba

XXII urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 6.705 zenbakija

Egunekua

"Urretxindorra"

Idazpurutzat idatzi dogun ixenburu onegaz "Euzkerea" aldizkingijak argitaldu daun antzezti polita da esku-aŕtian daukogun au.

Antzezti au, Iturralde eta Suit'en "Eŕotazuri'ko Uŕetxindoŕa,,'ri buruz Sota'taŕ Imanol antzeztidazle ezagunak eŕderaz idatzi dabena da, ta Altuna'taŕ Joseba euzkel-idazle trebiak euzkeraĺduba.

Gastetxubentzako idatzija dala diño.

Geuk be irakuŕi dogu, ta polit-polita eretxi dautsagu.

Sota'taŕ Imanol'ak, antzezti-idazlanetan, gure goralbenik eztau biaŕ; Altuna'taŕ Joseba'k bez, euzkeraltze ta enparauko euzkerazko idazĺanetan.

Idazle bijok doguz ezagunak, bijok apalak.

Beraz eztautsague txalorik joko, txalo-jote au antzokijan ikusiko dabenentzat laga baño.

卐 卐 卐

"Eŕotazuri'ko Uŕetxindoŕa,,'ren ipuña, antxiñatxu irakuŕi geban.

Eŕekondo-ziaŕetako zugaztijetan azke-azkerik abestuteko jayo zan txori abeslarija. Paul-Mari eritxon aundiki-etxeko mutiko bijuŕi batek atxitu eban, zugazpian atzipez imiñi eutsan lakirijuan etxitu be.

Gero, baŕiz, bera bixi zan jauregi aŕora eruan eban, eta uŕezko kayola apañian saŕtuta imiñi.

Paul-Mari'k, ain eŕez atzipez beragandu eban txorijari, txori-jakirik gozuenak kayoĺaratu eutsazan. Edateko, baŕiz, aitz-ituŕitik-arako ur gaŕden ozkiŕija.

Uŕetxindoŕa'k, baña, jakijei begiratu be ezeutsen egiten, ezta ur gaŕden ozkiŕijan mokorik ezotu be.

Uŕezko kayola aretako jaki gustijak baño zugazti-ziaŕ egatubaz luŕeko sastraka-aŕtian idoroten ebazan jakijak atsegiñago yakazan, ba, baŕa mendi galuŕetatik bera pil-pilka beko aranetaratuten zan eŕeka txikitxuko ura be.

卐 卐 卐

Lenengo egunetan ezertxu be ezeban jaten; edan bez, ezta abestu be.

Paul-Mari'k, ostera, egun gustijetan ikeŕtuten eban, eta jaki-edaki baŕijak eruan. Apuŕtxu bat alaŕuten asi zala uaŕtu ebanian, baŕiz, kayola-onduan jezaŕten yakon, eta txistubaz eresijak-eresi jo.

Eresijok, txori-eresijak barik, PaulMari bijuŕijak berak asmauriko eresijak ziran.

Eta ekin eta ekin, urtiak igazi ta urtiak etoŕi, Paul-Mari'k txistubaz joten eutsazan eresi gustijak ikasi ebazan. ¡Zeŕan baña, ikasi be...!

¡Eta au aŕigaŕija! Txori-abestijak, ostera, uŕetxindoŕ-eresi berezijak, aiztu egin yakazan, eta osuan aiztu be.

Paul-Mari'k kayolaratuten eutsazan jakijak be, ezetariko atxaki barik jaten ebazan, baŕa uŕezko edontzijan iminden eutsan ura edan be.

Oneik gauza gustijok egiten oturatu eban Uŕetxindoŕa bide zala, Paul-Mari aundiki-semia, pozen-pozaz zoratuta eguan. Eta aŕokerijak zirikatuta, juan gura eben gustijak eruaten ebazan agintzen eutsan gustija apal-apalik egiten eutsan Uŕetxindoŕa'ri entzuten.

Egun baten, bere amatxuri deitu eutsan, eta uŕezko kayola-baŕuban txirulioka eragoyon Uŕetxindoŕa'ri begira imiñi.

Ama-bijotza eŕukijora ixan be-ta, azke bixiteko jayo zan txori gaxua Paul-Mari'ren bijuŕikerijak espetxeratu eban lekuban aĺan abestuten ikustiak, bijotz-beratuta imiñi eban, eta espetxe aretatik azkatu egijala, Paul-Mari'ri esaten.

Paul-Mari'k, amatxuri ezetz ez esatiaren, uŕezko kayola apaña eskuban aŕtu eban, eta Eŕotazuri'osteko zugaztira eruan. Eta an, luŕian imiñita, atia edegi eutsan, eta zugaztirantz uxatu.

¡Eta a gauzearen aŕigaŕija! Uŕetxindoŕ gaxuak egaiz-egiteko eguak zabaldu gura ixan ebazan, eta ezin zabaldu.

Azke bixi zanian abestuten ebazan uŕetxindoŕ-abesti berezi jatoŕak abestuten asi zan, eta ezin abestu... ¡Gaxua! Kayola-baŕuan egonaren-egonaz, eguai eraten aiztu-egin yakon, eta abestuten be bai.

Paul-Mari joputzaliaren menpian, iñorako be gauza etzala geratu zan... ¡Len ixan eban azkatasunera biguŕtuteko be gauza etzaĺa, irakuŕle...!

卐 卐 卐

"Eŕotazuri'ko Uŕetxindoŕa..'z jazo zan arek, euzkotaŕoi zer oldozturik naikua damosku.

Geu be, Uŕetxindoŕ abeslari a ixan zan lez, azke bixi ixanikuak gana, ba, ta geure abesti berezi jatoŕak abestuten genkijanak.

Zoritxaŕeko egun baten, baña, guri be, Paul-Mari'ren antzezko atzipetzale bat toŕi yakun, eta bere jopu biguŕtuta imiñi.

Azkatasun-eguak aizkoreaz moztu euskuzan, eta berari entzutia atsegin ixaten yakazan abestijak abestuten irakatsi.

Izkuntzea be, beria irakatsi euskun... Eta urtiak igazi ta urtiak etoŕi, geure elez alkaŕ uleŕtuteko gauza ezkarala imiñi gauz.

¡Au gauzearen negaŕgaŕija! ¿Eta orain zer egin?

Paul-Mari'ren amatxuren aginduz, Eŕotazuri'ko Uŕetxindoŕa'ri etoŕi yakan azkatasuna, orain guri etoŕiko ba'litzakigu, etoŕi, ¿zer egiteko? ¿Uŕetxindoŕ gaxuak egin eban ĺotsagaŕikerija...?

卐 卐 卐

¡Ez, irakuŕle, ez! Eŕotazuri'ko Uŕetxindoŕa'k egin ebana egitekotan, oba genduke azkatasunik iñoz be etoŕiko ez-pa'litzakigu.

Tamalez, baña, euzkerea ta beste enparauko geure gauzai egiten dautsaguen baño jaramon geyago egiten ezpa-dautsague, Eŕotazuri'ko Uŕetxindoŕa'ri jazo yakana ber-bera jazo biaŕ yaku... ¡Azke ixateko gauza ezkarala geratu...!

URIBITAŔTE'TAŔ IBON.

¿Geure ekandubak?

卐 卐

Pantzeraz itz bat euzkerazko kideko barik dago: "couvade". Itz onegaz kantabaŕen ekandu bat ageŕtuten da: ekandu ori Estrabon ĺutelestilarijaren bitaŕtez bakaŕik dakigu.

Ona emen euzkeralduta Estrabon'aren itzak: "Emakumiak luŕa landuten dabe, eta umia egin dabenian gixonai otsein yakez ta euraen ordez oyan jaŕten dabez".

Itz onetan labuŕ-labuŕ atzalduten dana "couvade" itzaz adirazo gura dabe pantzetaŕak.

Ekandu ori kantabaŕen aŕtian bakaŕik barik beste eŕi askuen aŕtian didorogu antziñako aĺdijetan batez, be: Tracia'n, Eskitia'n, Tibar'an, eta Sicilia'ko Diodoro'k diñonez Corcega'n be bai: "umaldijan eztabe emakume-biaŕik. Emakumiak ume-egin daun-ezkero, gixona gexorik ba'lego letz ogatzera saŕtuten da, ta egun askotan oyan dirau".

Gauŕko bidaztijai ziñetsi biaŕ ba'dautsegu "couvade" itzaz adirazoten dogun ekanduba gauŕ be eŕi askotan idaroten da: Apirka, Asia ta Amerika'n auŕez. Europa'n bertan be —Zaborowski'k diñonez— Rusia'ko eŕi batzubetan ba-dirau.

¿Euzkadi'n bai-dago ekandu ori?

Itaune au dala ta eztala eztabaida andijak ixan ziran idazlien aŕtin. Cordiez'ak bere idazti baten Benabaŕa ta Zuberoa'ko batzui itanduta bayetz erantzun leutsaela diño.

Zamakola edestiĺari bizkaitaŕak Bizkaya'n, be, ekandu ori ba-zala diño. Txao'k berak be beria dagi bestien esan ori. H. Spencer jakitunak idazti ben-benean (1) auxe idatzi dau: "emakume euzkotaŕak ume-daginian senaŕa ogera juaten da ta adizidien zorijonak aŕtuten dauz emastia etxeko zeregiñak egiten dabilan bitaŕtian."

Oyenaŕte, Poka ta antziñako idazliak otura oŕetzaz ezertxo be eztiñue.

Blade edestilarijak gai oŕetzaz alde gustijetan itandu lebala ta loŕatzik, be, elebaŕa idoro diño, jauparijai, soŕtzañai ta abaŕi itandu-aŕen.

1874'gaŕenian eztabaidea bixi-bixi jaŕi zan Ayeŕe eŕijan otura ori idoro zalakotan.

Edesti apuŕ bat egin dagigun.

Piche jaunak Pau'ko aldizkingi baten "couvade" oturea gauŕ iñun ba-zan itandu leban. Lochard jaunak Piche'ri auxe erantzun leutsan: Etxekopar jaunak otura ori Ayeŕe'ko sendi baten jaboten dala diño ta emastiak auŕ-dagijan bakotxan senaŕa ogeratu egiten da, ta txaŕto ba-lego letz zaindu bere buruba. Piche jaunak Lochard'i jazokun ori "ziatz-ziatz" edestuteko eskatu leutsan. Orduban, Lochard jaunak Sabastide-Clairence'ko udalburu ta irakasĺiaren ageŕkai bat bidaldu leutsan Piche'ri: auxe liñuan: Etxekopar jaunari jazokuna edestuten entzun leutsaela. Orain aipaturiko ageŕkayaz batera Londaitz Ayeŕe'ko udalburubaren beste ageŕkai bat bidaldu leutsaen: auxe liñuan: L. jauna (senaŕa) oyan saŕtuten zala, L. bere emastiak auŕ-egiten leban bakotxan, eta emastiak umia ugutzauteko gertakixunak egiten liñardubaĺa.

Haristoi jauparija esan oŕein auŕka jagi zan: L. L. senaŕ-emastiak ondo baño obeto ezagutzen leuzala ta euraen otura oŕetzaz iñoiz itzik be elebala entzun. Londaitz'en ageŕkai au be ageŕtu leban: "Londaitz'aŕ Jon Kepa Ayeŕe eŕiko antziñako udalburu onek auxe agertzen dot: eŕi onetako gixonik bere emastiak auŕ-eginda gero oyan saŕtu danik eztakit, eta Etxekopar nire antziñako idazkarijak adizkidien batzaŕetan baŕe-egitiaŕen bakaŕik "couvade" oturea dala-ta jaŕi daun edeskuna guzuŕ utza dala."

Ementxe amatu zan eztabaida bixijau.

AGAREL.

(1) "La science sociale", ch. 6.

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros 5, 3.°, DONOSTIA

Artua eta babia txikitutzeko makiñak;
Txomin Olano'k
Saltzen ditu, merke
Plaza de las Escuelas, 10 g'n - Donostia

ARRIETA - BITXIZALEA
Legazpi, 10. - DONOSTIA. - Urrutizkiña, 13.777

EIZARA'KO SUIZKILLU (ESCOPETA) OLEA
L. LEGARISTI Y COMPAÑIA
SORALUZE (Placencia de las Armas) — GIPUZKOA

Euzkotar umien aldez

"POLIFEMO"

ARRITOKIETA

(AMAYA)

Aŕkaŕen ondo-ondoan kanikagaz jolasean genbiltzan aŕatsalde baten, geure atzean deadaŕ ikaragaŕi bi entzun ginduzen:

—¡Geldi! ¡Geldi!...

Era batera buruak giratu giñuzen. Antxe, geure auŕez-auŕe zegoan Eŕaldoi izugaŕia.

—Nor da gabean-gabean nere txakuŕa ostutzen duan lotzagabea?

Ilobiko ixiltazuna batzaŕean. Eguŕezkoak ba'giñian baño zuzenago ta gogoŕagoak biurtu ginduzen bilduŕ izuak.

Azken-epai eguneko tronpetak zarata egin zuan beŕiro ere.

—Nor da ori egiten duan lapuŕa? Nor da ori egiteko auzardia duan lotsagabea?

Polifemo'ren begi bakaŕ sutsuak bata bestien atzetik irentzi beaŕ giñuzen... Bere ondoan zegoan Muley'eri ere igertzen zitzayon makala ez zan estutasuna.

Orduan Andertxo gixajoak, argizaria baño zurbilago, auŕerantz pauso bat eman eta esan zuan.

—Ez iñori eŕurik bota, jauna, neuk eramaten det.

—Zer esan dek?

—Neuk eramaten detala—beŕesan zuan mutiltxoak len baño pixken bat gogoŕago.

—Euk eramaten dekala?—esan zion koronelak iŕi-baŕe bilduŕ gaŕi bategaz ortzak erakutzirik.

—Eta ez aldakik ik, txakuŕ au norena dan?

Andeŕ ixilik.

—Ez aldakikan txakuŕ au norena dan?—beŕesan zuan len baño oŕoa aundiagoakaz.

—Bai, jauna.

—Zeŕ? ia esantzak gogoŕago. Eta belaŕian eskua ipiñi zuan.

—Bai, jauna.

—Norena dek ba, ia esantzak.

—Polifemo'rena.

Begiak itxi nituan. Uste det nere laguntxoak ere berdin egin zutela. Zabaldu nituanean, uste nuan Andertxo'ren izena bizien liburutik kendua izango zala. ¡Ez oŕeaitik ere! Ez zan ala gertatu. Koronelak begiratu egiten zion txaŕez baño ikusmirez.

—Eta zergaitik eramaten dek ba?

—Lagunak geralako eta aĺkaŕ maite—erantzun zion mutiltxoak abots sendoaz.

Koronelak beŕiro begiratu z'ion.

—Ondo ziok—esan zion azkenez. Ikusiko dek ba, beŕiz eramaten ba'dek Belaŕi biak nik aterako dizkiat.

Au esanda bira osoa egin zuan, baña pausorik eman baño len, txalekuen patrikatik lauŕleko zuri bat atera eta esan zion Ander'eri:

—Ar zak, gozoak erosteko. Baña, ez gero geyago nere txakuŕik eraman! Ia ba.

Eta bai zijoan. Lau edo bost oinkada eman zituanean atzerantz begiratu zuan.

Andertxo gizajoak, luŕera erori zitzayon lauŕleko zuriari jaramonik egin gabe, eskuakaz aŕpegia estali ta negaŕari eman zion. Koronela arin ondoratu zitzayon.

—Zergaitik dagik negaŕ, mutil? Zergaitik? Ixilik ago.

—Asko nai diotalako, ta ludi onetan berak bakaŕ-bakaŕik nai ditalako—erantzun zion negaŕ batean Andeŕ'ek.

—Nongua aiz ba, mutil—galde zion Koronelak.

—Eŕuki-Etxekoa.

—Zer esan dek? diadaŕ egin zion Polifemo'k.

—Eŕuki-Etxekoa naizeĺa.

Au entzutean Koroneĺa nola zurbildu zan danok ikusi genduan. Aŕpegitik eskuak kendu, bere suduŕ zapiaz malkoak legoŕtu, besaŕkatu, laztandu ta esan zion:

—Baŕkatu eidak, ume, baŕkatu eidak! Nik esan diatanari ez egiok jaramonik egin... Nai dekanean txakuŕa eramantzak. Aitu aldek? Nai dekan guztian.

Itza abek danak, guk iñoiz aitu ez genion abotsaz esan zituanean, Andeŕ ixildu zan eta Polifemo'k auŕera jo zuan. Baña azkeneko aldiz ere auxe esanda:

—Eraman zak gero nai dekanian, e? euk nai dekan guztietan...

Jaungoikoak baŕkatu deitala, baña uste det ¡zer uste det gero! zin egingo nuke Polifemo'ren begi bakaŕ bilduŕgaŕi aŕtan negaŕ maĺko bat ikusi ete nuan.

Andeŕtxo arin aldendu zan, atzetik pozez saltaka batean Muley zualarik.

Armando Palacio Valdes.

(Aguas fuertes) Madrid 1884.

ARIMIA

卐

Gure aukeramena epeldu, indaŕgetu, ilundu dagikien ainbat zertzelada dirala eztau iñok ukatuko.

Sendi-bixikeraz beretu dauzan auŕespenak; biaŕ zan astiz, ezi ez euzan giŕñak; beragandu dauzan otura, ekandubak; ainbat naimeneri ta goeri, adibidez; kiriepelerija; baŕa baŕunbepeko gotargi ilunaldiz, baŕen-baŕenetik goi-goraño igoten diran uñaspil eskutukoŕak; baŕa ta bestiok biaŕkuna argi ikusten eztabela izten, eta batzubetan, biaŕkun-irudija leuzotu ta ostendu lez egiten dabela bai-dakigu; adikuntzadun garala baña, onetarikoren bat beti nagosi ixan, eta aukeramendun ezkarala, egiten doguna egiten dogula, noraezkerijak diñuan eraz, beti noraezez egin-biaŕ dogula ez, au ezin ezetara be zuzenetsi dagikegu.

Adipetu gadixan, euren ostekuna irutara, obeto esateko, batzuk batera, ta beste batzuk bestera auŕkeztuta, irutariko auŕkarijak agertzen yakuz.

Noraezkerija azaldu dogu, ta gaikilari gustijak baŕa Haeckel, Spencer eta Ziehen bakalelea eraldatzaletarijak *indaŕnoraeskerija* auŕkeztuten dauskube.

Oneik dirauskubenez, gaudijon gaiki-baŕirik ezta egiten, len danik galdu bez. Gaiki bakotxak indaŕ-neuŕija aŕtuta dau, beraz, gaiki bakotxari agiri yakona, ta ixan dagikena baño indaŕ geyagorik gaudijon ezin ixan dagike, lendik eztan indaŕ baŕirik ba, ezin ageŕtu dagike, len danik galdu bez.

Naimenak ba, berberak bera, aukeramenez, erainka imiñi al ba'dau, indaŕ baŕija soŕtuko litxake, ta indaŕ baŕirik soŕtuterik eztau, beraz aukeramenik ezta.

Indaŕ eta almenatzaz len esanda doguna baŕiztau egixu, ta ostekunaukia axez baño eŕezago begizkatu, ta ezebeztuko dozu. Bai-ba indaŕ baŕija soŕtzia ezta lendik dan almenak beria egitia.

Naimenak beria dagijanetan, eztau indaŕ baŕirik soŕtzen, berari yaokon ala erabili baño. Buzkindarijak eskulekuba erabiltian, indaŕ baŕirik eztau soŕtzen, len dana aŕtu, ta zuzenbidez erabili baño, augaŕik, bultziko buzkiñak, indaŕa len be bai eban bera dan gaiki osua lengua da-ta, baña indaŕ ori geldi eguan, eta buzkindarijak eskuletik oratu ta eragin dautsonian, indaŕa agiri jaŕi, ta bizkoŕ ibilten asi da. Augatik, Kastelein Abeak naimena *igisoŕtzelarija* baño, *igizuzenlarija* obeto dala diño.

Baña oindiño geyago. Indaŕ-neuŕija, gaudijon gaiki-neuŕiz beti bardin dala oindiño ikusteko dago. Neuŕijan *beroigijatzaz* baño ezta agertu, enparauetan ixango danik be eztakigu. Eta gaikijatzaz iñoz ikusiko balitz be, bixi-ixan dagikezan indaŕ-igikunak neuŕgiak diran-ezkero, euroen indaŕ-arau a be beti bardin dalakori gu adipetuteko lain argi ezingo leuskegube irargiz irakatsi, beraz, indaŕ-aindo ori, eurak gura daben gaiki gustijatzaz beti bardin dala be, gu aukeramendun ixango gintzakez, naimen-almenez dagigunak indaŕ baŕirik soŕtzen eztaualako.

Berak bakaŕik, beste almen-barik, egiñaldijan bertan egin al dauzan egikunak dira. Adibidez; gura ixatia, maŕe ixatia, goŕoto ixatia. Egikun onetarako eztau gaikindaŕik biaŕ.

Eta egikunok ixenez *bakalnaikunak* esan da ezagutuko doguz.

Ara, gixanaimena adikoŕa da-ta zelan bait ezaututen eztauananik eztau nai-ixaten, ixan be ezin dagike. Zerbaistetzaz aukeramena erabilteko ba, biaŕ dau:

1.ª Adimenketz, aukeramenari egoki yakon banango ori ezagutzia.

2.ª *Eztabaikuna*; naiko dauanori jadesteko, nai dauan elburura eltzeko biaŕ ixango dauzan bidiak bilatzia.

3.ª Biderik egokijena ixango yakonatzazko *etsipena*.

Niamenketz *autukundia*; bide bat beste bat baño, aldi atan beintzat, egokijago ta aldintsubago yakola-ta, enparauak zabaŕtu, ta berau aŕtutia, aututa erabiltia.

Bidian naimenak beste *men*, beste almen-barik, berberak erabili al badau, gixegikunak *bakalnaikunak* dira. Bidian erabiltian, beste *men*, beste almen bat biaŕ ba-dau gixegikuna *agiñaikuna* da, beste almen baten bidez, aginduz egiten dauana: onetarikuak dira oldozkuna, irudikuna ta abaŕ.

Dakusazunez ba, bakalnaikunak gaikindaŕik eztabe biaŕ, almen-aldiña yake naikua. Eta agiñaikunak gaikindaŕik ez geitxerik, ez gitxitzerik eztabe, len dan indaŕa, obeto almena zuzenduta baño ez.

Oneik beste asmo bat be bai-dirauskube. Gixakija abere-aldaketaz soŕtuta dala, beraz, beste aberiak baño areago eztala, ta oneik aukeramendun ixan ezta, gixakija be ezin aukeramendun ixan dagikela.

Au, asmo utza baño besterik eztala iñor adipetuten ezkuaz, eurak astokumak ixan gura ba'dira, ixan bediz, guk adimena dogula argi-asko adirazo dogu, ta eurek beste aberiak aukeramendun eztiralako, gixakija be ezin aukeramendun ixan dagikela diñuen eskubidez, gixakija adimendun dan ezkero, ta beste aberiak ez, gixakija abere aldaketaz ezin soŕtu dagikela diñogu. Eurak esan, eta kitu egiten dabe, guk irargi garbijak ekaŕi doguz; diñuena adipetu eragingo dauskuben irargijak ekaŕi biaŕ dabez, baña alpeŕik itxarongo dogu, eztabez ekaŕiro-ta.

(*Daŕaike*)

TABIRATAŔA.

ITZATZALGAŔIJAK

Sendi, familija.
Auŕespen, prejuicio.
Naimen, borondatia.
Goeri, arimako gaxua.
Kiriepeleri, neurastenia.
Naipeleri, abulia.
Gomuteri, aiztu eri, psikastenia.
Uñaspil, olatu nastaua.
Adikuntza, ezauera.
Noraezkeri, determinismua.
Adipetu, convencidu.
Ostekun, objeciñua.
Bakalela, monera.
Adikoŕ, racionala.
Eraldatzaletariak, transformacionistak.
Indaŕnoraeskerija, determinismo mekanikua.
Gaiki, materijala.
Buzkindari, maquinista.
Buzkin, máquina.
Igisoŕtzalia, dinamógeno.
Igizuzenlarija, dinamotropa.
Beroigi, cinética.
Irargi, prueba.
Aindo, canidadia.
Igikun, movimentua.
Bakalnaikun, acto elicitua.
Estabaikun, deliberasiñua.
Agiñaikun, acto imperadua.

Irakurri EUZKADI

Errijetatik

ZARAUZ

V OLEŔTI EGUNA.—Gero ta gar aundigo nabaitzen da Zarautz'en, ta esan digutenez baita beste gipuzkoaŕ eŕi geyenetan ere, "Lizardi" zarauztaŕ oleŕkari aipatuaren omenez egingo dan V Oleŕti Egunerako.

Ta ez da gutxigotarako, Batzoŕde eratzaleak antolatu duan agerkaya ikusi ondoren.

Asiera ta bukaerari bakaŕik begiratuta ere, poztutzen ditu gure biotzak datoŕen larunbatean eta igandean (J. Ĺ.) igaro beaŕ ditugun euzko-usaiz jositako egun edeŕ oyek gogoratzean.

Umeak abestuko duten "Angelis" jaupakin emango zayo asiera, "Aur Euzkaldunen Eguna,,'ri. Jaupa berean Aita Altzo buruñurdunak zuzenduko die itza bertaratzen diran gaztetxoai. Ondoren azterketak euzkeraz gipuzkoaŕ eŕi batzutako umeak bertaratzen dirala. Aŕatsaldean euzko-dantzak, ilunabaŕean antzeŕki jaya. (Azkenengo onen agerkai osoa azalduko degu uŕengoan).

Ez du beraz nolanaiko asiera izango, Agiŕe Zarautz'ko seme leyalari eskeintzen zayon Oĺerti Egunak.

Ta asiera ona eman ezkero, amayera ere egokia eman beaŕ ba, ta eratzaleak au ikusirik, "Euzkaltzaleak" eratutako Antzeŕti-txapelketan lenbiziko saria irabazi zuten donostiaŕ "Euzko-Etxea,,'ko antzezlari taldea dakarkiye.

Beaz asiera egokia bada, donostiaŕ ertilari yayoak "Ramuntxo" antzeztuaz eskeñiko diguten aŕatsaldeakin emango zayon amaya ez da utsegitekoa izango.

Gañontzeko jayak euzkeltzalien atsegin izango diraĺa, ez dago zer esanik.

Al dezuten guztiok Zarautz'era etoŕi beaŕ dezute ba, "Lizardi'taŕ Jabier" onentzera.

Oaŕak.—Antzeŕki-jai ta zenzen-plazako jairako txaŕtel saneuŕi ta beste zeastasunak, egitarau berezietan ipiñiko dira.

Otoruntzaren saneuŕia 7,50 lauŕleko da. Ortarako txaŕtela nai duanak ilaren 7 aŕatserako esku beza idazkiz edo uŕutizkiñez Udaletxera edo bere izena eman ortarako jaŕita dauden ingietan. Txaŕtel ori gabe ez da otoruntzara joaterik.

Ara zer bazkari izango da:

Zizka-mizka
Olo ta aŕai zukua
Aŕautz-opila zizakin
Legatz eŕia ozpin salda ta mahonesa'kin
Egaztia barazkiakin
Ardo ta sagardo
Mai-azkenak.
Izozki ta igaliak
Akeita, txoĺ eta txokoŕ

ZABALA.

LEKEITIO

LAŔAMENDI ZANAREN SENDI-ALDEZKO BILPIDIA—Moral'daŕ Bonabendur, 2 lauŕleko; Eguŕola'taŕ Joseba M., 2; Zelaya'taŕ P., 2; Atxuŕa'taŕ Eŕupa, 1; G.'taŕ M., 5; A.'taŕ M, 3; O'taŕ Joseba, 1; Erkiaga'taŕ E., 1; Eloŕdi'taŕ Nekane, 1; Goitia'taŕ Keperin, 1; Julian G. A., 1; Etxebaŕieta'taŕ Jon, 2; Sarasola'taŕ Eulogi, 1; Kortazar'taŕ Kauldi, 2,50; Zabala'taŕ Julen, 1; Koskoŕotze'taŕ Mikel, 5; Euzko-Batzokija, 15; Agiŕe'taŕ Mari, 1; Akaŕegi'taŕ Gurutz, 1; Aŕinda'taŕ Todor, 0,50; Bolar'taŕ Adiran, 1; Leturia'taŕ Joseba, 0,50; Erkiaga'taŕ Estepan, 1; Agiŕe'taŕ Justa, 1; Barbarias'taŕ Emili, 1; S.'taŕ Julen, 0'50; Goikoetxea'taŕ Luki, 0,50; O'taŕ J., 1; Etxebeŕia'taŕ Kasilde, 1; Laŕeta'taŕ Aĺbontsa, 2; Solano'taŕ K., 5; Jayo'taŕ Pilare, 0,50; Onandia'taŕ Jone, 0,50; "Emakume batek", 1; Sarasola'taŕ Anbortsi, 0,50; Urkiaga'taŕ Kelda, 1; Emakume-Abeŕtzale-Batza'k, 15; "Galletas Aŕiola", 2; Sabutajon, 1; Barbarias'taŕ Jon, 1; Legarza'taŕ Paul, 0,50.

Gustiz, 85,50 lauŕleko

E

ISASONDO

IDIAZABAL.—Datoŕen igandian ilan 10'n Idiazabal'ko Emakume - Abeŕtzale-Batza'k eraldu dituan jai abeŕkoyetara juateko asi gerade gerturatzen bai emakume eta bai gizoneskoak.

Goizetik oturuntzara-ere juango dirade, aŕatsaldian beŕiz ezdago zer esanik, aŕatsaldian aldegun guztiok, aitzakitan etxian geĺditu gabe Idiazabal-a. Izlari ospatsuen itza entzutera, izlari aben aŕtian baita gure Aldun edo Diputaduena-ere.

Gure irakasle Arana-Goiri'taŕ Sabin, euzko-ume eta euzko-emakumen maitalea zan, argaitik berak ereintzuan azia lur berezian egiña izanduzan, eta ori egia dan edo ezdan, orain urietan jartzen diran Umetxuen-Batzak eta Emakume-Abeŕtzale-Batzak adirazten digute.

Abeŕtzaleak, eta batez-ere Emakumeak antolatutzen dituzten jayak egun aintzagaŕiak (gloriosos) asko-ta-asko ditugu, lengoan Zaĺdibia'n izandu zana orain uŕena, eta gero Idiazabal'goa. Eta Idiazabal'go jaya aintzagaŕia izangodala nork zalantzan jartzendu?

Igandian danok Idiazabal'a.

EZKONTZAK. — Bizi diran aŕterako lasteŕ ustaŕi Donean ustaŕtuko dirade, gure lagun maitea-dan Ormazabal'daŕ Joseba Iñake, E. A. B.'koa dan Rezoĺa'taŕ Miren Terese'kin.

Baita ere, era berean ustaŕtuko dirade, gure lagun onak diraden Luluaga'taŕ Juane Josebe, Esnaola'taŕ Domeka'kin, eta abek bañan gutxiago ez izate-aŕen lasteŕ ezkonduko dirade, Ordizia'ko Lekuona'taŕ Eukeni, uri onetako Ituŕioz'taŕ Miren Jone'kin.

Danak gure lagun on-onak dirade, eta gure Jaun onak urte askoan alkaŕekin izatea nai dezala, biyotz-biyotzetik opadizutegu, eta aŕen, ondorengorik bada euzkaldun onak bezela, euzkerazko izenak jartzea-ere ez aztu.

ERIOTZA.—Aspaĺdian gaxorik egon ondoren, gure lagun maite Ibarguren'daŕ Simon'ek bere semetxo Biŕora'ren, eriotza ikusi-beaŕa izan du.

Benetan mingaŕia-da 17 ilabeteko gotzontxoa iltzen ikustea, bañan pozbat badezute gurasoak, Donokian semetxo bat badezutela, benturaz oraingo atsekabien ondoren, poza emango dizutena.

Atsekabian laguntzen dizutegu.

MURUMENDI.

SORALUZE

ERIOTZA. — Egun gutxi dira, Jaun-Goikoaren besoetan il zala Amutxastegi'taŕ Jone, Arizti'taŕ Jon'an emaztea. Atsekabean laguntzen diogu bere sendikoai.

IRUKOITZ.—Eguraldi edeŕa egin zan egun egun oŕetan, eta pozik etzeratu giñan egun alai bat igaro ondoren Elgoibaŕen.

KOFPUZTI. — Eŕkala etoŕi zanetik igande aŕte ezta egin ibildeunik. Oŕegatik notintza aundia bildu zan.

EGURALDIA.—Eguraldi beroak egin ondoren, euri mamintsuba jausi yaku. Euri au dala ta, lugiñak pozik dagoz. Eguraldijok olan jaŕaitzen ba'dabe, arto, gari eta abaŕ on-onak izan beaŕ dabe.

ATXUŔA TA KIRTENA

Lontziok.—Ola, don Keŕeto.

Keletok.—¿Zer darabik, Lontzio?

L.—Eskutitz bat berori erakustera natoŕ.

K.—¿Norena dek?

L.—Nere seme Usabio'rena

K.—¿Nun dek bera?

L.—Kijon'en.

K.—¿Zer egiten?

L.—Erdera apurtxo bat ikastera joan zan ba...

K.—¿Eta ezer ikasi aldik?

L.—Bai, guk ulertu aña geyago. Eŕbeza mesede azkeneko eŕenkolada oyek izakurtzeaz.

K.—Goazen ba "El que mucho abarca poco aprieta" ¿ori esan nai aldek?

L.—Bai jauna, bai. Gure Mañaxik berari "barkazioa" eskatzen diola uste det, nik beŕiz beste gauza bat uste det.

K.—¿Zer ba?

L.—An, etxe ondoan daukate ur gain an potin txiki bat "barca" deitzen diona. Esan nion an ez ibiltzeko baña "mucho barca" oŕek an asko ibiltzen dala esan naiko duala uzte det.

K.—Ez gizona ez. Eztik esaten "mucho barca" baizik "mucho abarca".

L.—¿Zer esan nai ote du ba?

K.—Abarka asko duenak alpraeta gutxi beaŕ duela.

L.—¿Ori da guzia?

K.—Orixe.

L.—Ori ark esan gabe ere badakigu.

K.—Eta ¿esango aluke ik ori erderaz?

L.—Ez jauna. Ura eŕderaz ikastera joan zan, eta "vamos" badijoa ikasten. Badegu eŕian bedoŕi bezelako gixon bat ten beaŕa.

Asko aldiz ikusi
oi dira luŕian,
atxuŕa ta kirtena
elkaŕen uŕian.

ITURGAIN.

ONDARROA

ONDAŔOA'KO EUZKO-GASTETXU-BATZA.—Bagila'ren 9 eta 10 euzko-jai edeŕak egingo dira uri onetan Batza onetako ikuŕiñaren onespena ospatuteko.

Egitaraba:

Bagila'ren 9'an. — Gabeko zortziretan Euzko-Batzokija'ko txistuĺari yayuak biribilketa alai-pozkoŕak erestuko dabez.

Ondoren Euzko-Batzokija'n Euzko-Gastetxu-Batza'ko antzezlarijak "Abeŕijaren Bixi" ekintza bateko antzeŕkiño abeŕkoya antzeztuko dabe.

Jaŕayan itzaldi labuŕ bat esango da.

Bagila'ren 10'an.—Goxeko seiretan txistularijak biribilketa itxarkoŕak joko dabez.

Zortziretan Miren Neskutzaren ermitan donan Jaunaŕtze orokoŕa.

Amaiketan Jaupa abestuba ta ikuŕiñaren onespena.

Jaupa-ondoren pelota-lekuban pelota jokua:

Zubikarai anayak, Solabaŕieta eta Aguirre'ren auŕka.

Jaŕoyan auŕeskuba dantzatuko da.

Aŕatsaldeko lauretan euzko-jai edeŕa egingo da pelota-lekuban, 130 dantzari esku-artubaz.

Jayaren egitaraba:

Lenengo ekin-aldija:

1. Saŕera orokoŕa.
2. Lauburu dantza.
3. Ikuŕiñari makurpena.
4. Poxpolin ereseŕkija.
5. Zortzikua.
6. Banako zaŕa umetxubak

Bigaŕen ekin-aĺdija:

1. Uztai-dantza
2. Banakua.
3. Diñakua.
4. Ain uŕin, pozpolin-abestija.
5. Kiri-kiri-ken.
6. Gona goŕitxu.

Irugaŕen ekin-aldija:

1. Launakua.
2. Txakaŕenkua
3. Zinta-dantza.
3. Uztai-dantza.
5. Arin-arin umetxu bik.
6. Makil-dantza.

Laugaŕen ekin-aldija

1. Gastetasuna.
2. Aurtxo danak.
3. Zagi-dantza.
4. Euzko-ikuŕiña.

Ondoren ilundu aŕteraño euzko-alai-bixija.

OKEŔAK